

# Goierritarra

281. zenbakia

2005eko maiatzak 20

## Txotxongiloen artisauak



ASTE BERDEA '05

maiatzak 30 - ekainak 5

GOIERRIN





**BEROGAS**  
 ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA  
 BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK  
 ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK  
 BERRIKUNTZA LANAK  
 GREMIO GUZTIEN ARDURA



**BERÓGAR**  
 SUKALDEKO ETA  
 BAINUKO ALTZARIAK



**BULEGOAK-LANTEGIA**  
 USABAL, 11-A  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 672 620

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**



**ERAKUSKETAK:**  
 SAN FRANTZISKO, 10  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 653 307



*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*  
**I. Fdez Or naburu Dra.**  
 (Medikuntza estetikoan masterra)  
**A. Ramirez Baigorri Dra.**

*Kursal*  
**ZENTRO MEDIKUA**  
**943 88 22 51**  
 Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**



R.P.S.:3204

## BERTSOTAN

## Bertso eskola



Joseba Agirrezabala

Ostiralero bertso eskola  
Ordizira amarekin  
bosterditako Barrenan gaude  
gu bilduta elkarrekin  
lehenago da agurra  
eta gero izurra  
gaiak eta lau oinekin  
baina hoi dena konpontzen degu  
guk umore onarekin. (bis)

Sarriegikin gu jo eta ke  
kantatu eta kantatu  
guri hainbeste la eman eta  
saioa ezin bukatu  
horretan bizioa  
da nere desioa  
ta behar det deklaratu  
bertsolaritza gauz ona dela  
hori ezin da ukatu. (bis)

Doinua: Iparragirre abila dela

Goierritarra

## HAMABOSTEKARIA

## Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

## Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

## Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424  
647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere  
gain hartzen derrigorrez,  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzukizunik.**

## AURKIBIDEA

- 4. **Iritzia:** Idurre Eskisabel
- 4. **Ingurugiro txokoa:** Aralar Parke Naturala
- 4. **Errezeta:** Entsalada epela mariskoarekin  
**Aholkua:** Zuhaiskak eta landare igokariak
- 8. **Kate motzean:** Jon Mujika
- 10. **Elkarrizketa:** Txotxongiloak
- 14. **Elkarrizketa:** Oiangu Bizirik plataforma
- 18. **Erreportajea:** Zerain-Dordodonia elkartrukea
- 21. **Garai batean...:** Julian Alustiza 'Aztiri'-ren heriotza
- 22. **Non zer?**
- 24. **Debaldeko iragarkiak**
- 30. **Argazki zaharra**



**Goierritarra** Goierriz kanpo  
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro  
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro  
Europaz kanpo: urtean 36 euro

**Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:**

**GOIERRIKO UDALAK**

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,  
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberría, Ordizia, Ormaiztegi,  
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Idurre Eskisabel  
Larrañaga

*Hain  
diferenteak izan  
arren, elkartu  
egin ziren eta  
normalean  
bakoitzak bere  
txokoan  
gordetzen zuena  
elkarrekin eta  
aditu nahi zien  
guztiekin  
partekatzea  
erabaki zuten.*

## Amaiera garratzeko ipuin ezia

**B**azen behin beste asko bezalako bailara bat, mendien noizbaiteko altzoran eta erreken nolabaiteko lerroan hainbat herri eta gero eta industria gune, merkataritza zentro eta garraio bide gehiago biltzen zituena.

50.000 bat lagun bizi ziren bailara hartan, gehientsuenak ondasun materialez oparo, gutxienak eskasian. Beste bailara askotan bezala bizi ziren: 'helduen' artean soldataren trukeko lanean egiten zuten gehienek egunaren zatirik handiena; saripeko enplegurik ez zutenek, berriz, haren bila; bazen, halaber, batere soldatarik kobratu gabe egun guztian lanean jarduten zuten andre saldo bat –eta gizon bakan batzuk–. Jakina, ume eta gazte jendea ere bizi zen, eta jakinmina galtzen irakasten zuten zentroetan pasatzen zituzten orduak eta orduak. Zahartuta lanetik erretiratzen zituztenek paseatzeko astia zuten hainbeste urtetako obligazioaren sari.

Astialdia izeneko gauza preziatu bat ere bazuten; era beteko edo besteko lanean igarotzen ez zuten denbora apurrari esaten zioten hala. Baina laburra izanagatik ere bete egin behar zuten astialdia, ohitura faltagatik hain aztoragarria gertatzen zitzairen denbora tarteak. Beste bailara askotan bezala asmatua zuten nola aurre egin momentu huts horiei: kirola egiten zuten laneko larritasuna kanporatzeko; kirolari profesionalen azañei begira ikusten zuten barne ametsen kanpo isla; telebistako *reality*-etako haserre fiktizioei beha baretzen zituzten barne haserreak. Merkataritza zentroetan goraino zamatutako karroekin betetzen zuten barrera, eta zarata paretak bezain gotor zen tabernak aukeratzen zituzten besteengana iritsi gabe barruak husteko. Astialdiko epe luzeetan –oporrak esaten zieten– postalezko bidaiak egiten zituzten kanpokoa eza-gutzeko.

Oro har, beste bailara askotan bezala, kanpotik ematen zietenarekin asetzen zuten barrera, eta eurek aukeratutako agintariek hartan laguntzen zieten.

Baina beste bailara askotan bezala, hartan ere bazen jende diferentea. Aintzina 'xelebreak' esaten zieten; diglosia iritsi zenean 'colgaos', eta 'freaky' triglosiarekin.

Xelebrek ere ez zuten multzo bakar bat osatzen, era askotakoak zeuden haien artean, baina bazuten antzeko egiten zituen berezitasun bat: barruari kaso egiten zioten; euren baitakoak ziren.

Batzuek dantzan adierazten zuten barrera; beste batzuek kantuan. Antzerkia, pintura eta eskultura, zinea, bertsoak... ziren beste xelegebre batzuen adierazpideak. Gehien-gehienek soldatapeko lana amaitu ondoren heltzen zioten barne zaletasunari, bizimodu bikoitza praktikatu. Ausartenek, xelegebreetan xelegebrenek, barnea aberasteko nahi zuten denbora guztia, eta ariketa zailak egin behar izaten zituzten bizimodu irauteko.

Egun batean –aspaldian gogoratzen zen negurik gorrieneko hotzenetako bat zen–, barnea literaturarekin betetzen zuten bailarako xelegebre talde bat elkartu zen. Molde askotako xelegebre idazleak: adinez, heldutasun bete-betekoak batzuk; gaztetasunaren muga doi-doi pasatakoak bestetzuk, eta tartean bazen dagoeneko erretiroarekin ametsetan hasitakorik. Zenbait, bailaratik kanpora sona eta sari asko jasotako idazle kontsagratuak ziren, eta justu-justu aurreneko poemak zirriborratzen hasitakoak bildu ziren haien babesera. Pentsatzeko zein esateko moduan, berriz, bakoitza bere amaren alaba edo seme.

Baina hain diferenteak izan arren, elkartu egin ziren eta normalean bakoitzak bere txokoan gordetzen zuena elkarrekin eta aditu nahi zien guztiekin partekatzea erabaki zuten. Besteak beste, desberdintasunen gainetik guztien barnean mintzo zen hizkuntza diglosiaren aroa hasi aurretik eskualdean nagusi zen euskara zelako. Bailarako herri handiengan egin zuten hitzordua. Bilgunerik ezean, beste xelegebre talde batek utzi zien beren etxea, Gaztetxea izenekoa.

Eta elkarketa majikoa gertatu zen: xelegebre idazleak ez ezik, xelegebre literaturazaleak agertu ziren hitzordura (70 bat), eta batzuen barrenetik atera zena besteengan txertatu zen, adin eta pentsakera mugarik gabe. Otsaileko gau hotza epel bihurtu zen eta Gaztetxearen horma pobreak inongo barrunbe goxoaren argune.

Hala eta guztiz ere, bailarako herri handiengoko kultur agintariek ez zieten xelegebre idazleei 1.200 euro eman nahi izan ekitaldi hartan bozgora irakurritakoak argitalpen xume batean bildu eta jende gehiagorengana iritsarazteko; ez eta, errezitaldia horma ederragoko areto batera eramateko.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Errekarte Haundiko plazan.

# Aralar Parke Naturala, Natura 2000 sarean

Azken abenduan, Europar Batasunak Eskualde Atlantikoko Natura 2000 Sarea onartu du. Horren barruan, Goierriko hiru naturagune aurkitzen dira: Aizkorri, Aralar eta Oriá Garaia, jadanik Eusko Jaurlaritzak Garrantzi Komunitarioko Lekutzat izendatuta zituena. Hori dela eta, daukaguna gehiago ezagutu beharrean gaude, alegia, naturagune horiek zer gordetzen duten jakin. Ikus dezagun, bada, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak argitaratutako “Naturagune paregabeak Euskal Autonomia Erkidegoan, Natura 2000 Sarea” liburuen arabera, Aralar naturagunearen balioak zeintzu diren:

“Aralar Euskal Autonomi Erkidegoan hobekien kontserbatzen den mendialdeetako bat da.

Gipuzkoa eta Nafarroa-erriko mugan kokatua, sei udalerritako (Abaltzisketa, Amezketá, Ataun, Lazkao, Tolosa, Zaldibia) eta Enirio-Aralar mankomunitateko lurrrak hartzen ditu bere baitan. Babestutako espazioa berriz, Altzania-Lizarrusti Mendilerroaren iparraldeko isurialdeak, Ataungo domoak eta Enirio-Aralar guneak osatzen dute.

Arrezife-jatorria duten kareharriek Aralarreko erliebe nagusia osatzeaz gain (Txindoki, Ganbo, Ataungo domoa), hainbat fenomeno karstiko ere sortzen dute: dolinak, lapiazeak, iturburuak, kobazuloak...lurpeko sare hidriko garrantzitsu bat eratuz. Honekin batera, azpimarragarriak dira glaziar-jatorria duten erliebe eta se-



*Berezo basoetan, ugaztun haragijaleek, hegazti harrapariek, okilek, saguzarrek eta interesa duten bainbat ornogabe, arkanbele eta kakalardok dute bizilekua.*

dimentuak, Arritzaga bailara, adibidez.

Baso naturalek, babestutako espazioaren herena baino gehiago estaltzen dute, pagadi zabalekin generik garaietan, eta neurri txikiagoan, harizti, artadi eta erkameztiakin behaketan. Bestalde, gutxi izan arren, azaltzen duten kontserbazio-balio nabariagatik aipatzekoak dira leku sakan batzuetako haritz, astigar eta ezkien baso mistoak, eta haltzadiak.

Berezo basoetan, ugaztun haragijaleek (lepahoria, basakatua, ipurtatsa, azkonarra, katajineta), hegazti harrapariek (mirua, zapelatz liztorjalea, arrano sugeza-lea, hontza ertaina), okilek (okil beltza, okil txikia), saguzarrek (baso-saguzarra, gau-saguzarra, arratoi-belarri txikia, belarri handia) eta interesa duten bainbat ornogabe, arkanbele eta kakalardok dute bizilekua.

Enirio-Aralar mendigu-nearen goietan, artzantza-ohitura handia duen lurralde bati dagokion bezala, mendi larreen eta landen azalera zabala dago. Gune

hauetan, landare arraro edo interesgarriak eta banaketa murriztua duten fauna-espezieak (lursagu elurtarra bezalakoak) biltzen dira. Behealdetik, zelaiek eta laborantza atlantikoek betetzen dituzte bailaren hondoak eta herrien inguruak.

Aralar aldean, goi-mendietan berezoak diren espezieak eta beste inon bizi ez den kantabriar-piriniar espezie ugari dituen landaredi mota aurki daitezke. Ibai askoren iturburu ere bada Aralar (Agauntza, Zaldibia, Ibiur, Amezketá). Ibai-ibilgu, iturburu, urmahel eta jariotzaile inguruetan, interes handiko flora eta fauna nabaria dago, hala nola haltzadi atlantikoak, mehatxatuta dauden ornogabeak, ibai-karramarroa kasu, edo loina bezalako arrainak, eta ornodunak, mutur luze piriniarra, ur-satitsua edo bisoi europarra bezalako ugaztun erdi-urtarrak. Aparteko arreta eta gogoan hartzekoa da azken hau, bisoi europarra, desgertze zorian baitago mundu osoan”.

*Edurne Huesa*

## LIBURUA

**“Legea eskuan. Zelan erabili zure eskubideak ingurumenaren alde?”**

Ekologistak Martxan. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin argitaratutako gida honetan, hiritarrek ingurumenaren defentsarako dituzten aukera legalak aztertzen dira.

## JAKIN BEHARREKOAK

**Etxe blokeetako hiri inguruneek urbanizazioek baino energia gutxiago gastatzen dute:**

Nafarroako Unibertsitateko ikerketa baten arabera eraikitako metro karratu bakoitzean kontsumitutako energia bi aldiz handiagoa da familia bakarreko eta adosatutako etxeetan, etxebizitza kolektiboetan baino. Blokeetako etxebizitzak dituzten hirigune konpaktoek urbanizazioek baino gastu energetiko gutxiago dutela diote eta baita azaltzen dute hiritar askok urbanizazioak bizitza kalitatearen adierazletzat hartuak direla, horrela Europar hiriak eredu amerikarra imitatzen ari direla, eredu horretan etxe bakarrek eta adosatuek lurzorua inbaditzen dutelarik. Hala ere, adituek diote urbanismo berri horren ingurumen inpaktoa nabaria dela. Ikerketak kontsumo energetikoa kontabilizatzen du, bai eraikuntzan zein urbanizazioan, nola erabilitako materialetan.

# Urtean sortzen ditugun hondakinekin Anoetako estadioa bete dezakegu

Gipuzkoan urte oso batean jasotako zaborraz Anoetako Estadioa bete daiteke. Gipuzkoako etxeetan sortzen diren zaborren %80 baino gehiago hondakindegira botatzen jarraitzen dugu. Goierrin, datu hau zertxobait baxuagoa da, 2004. urtean %25,7 birziklatu bait zen.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016 plan orokorraren aurrerapenean, Sasietako hondakindegia 2009ra arte du erabilgarritasuna. Eta gero zer?

Kasu gehienetan herri-tarrak ez gara jabetzen sortzen dugun zabor piloaz. Goierrin egunean pertsona bakoitzak 1,25 kg sortzen ditugu. 1995. urteko datuekin alderatuz pertsona bakoitzak egunean ia kilo erdi gehiago sortzen dugu eta urtean 142,5 kg gehiago. Konponbide gisa hondakinak murriztea, birziklatzea, berrerabiltzea eta gero azken tratamendua ematea da. Alabaina, lehenengo hirurek herritarren hezkuntzarekin eta kulturarekin dute zerikusia. Lehenik eta behin gure kontsumoaren erantzule izan behar dugu, hondakin horiek murrizteko eta gero gure hondakinak bereizteko.

Garbi dago erostera goazenean ez dela batera erreza izaten poltsa, kartoi, papela, plastiko... gabe bukatzea. Ahalegin bat egin behar dugu hala ere. Behar bada, egunen batean, horrenbeste bilgarri erabiltzea galaraziko dute.

URTEA	KG/BIZ/URTE	KG/BIZ/EGUN
1995	313	0,85
1999	423	1,1
2000	440	1,2
2001	411	1,2
2002	458	1,2
2003	460,4	1,26
2004	455,5	1,25

Sasietako datuak.

URTEA	2003	2004
<b>Gaikako bilketa (kg/urte)</b>	6.034.000	7.669.215
<b>Zabortegeira botatakoa (kg/urte)</b>	24.075.000	22.122.640
<b>Guztira sortutakoa (kg/urte)</b>	30.109.000	29.791.855
<b>Sortutakoa (kg/bizt/urte)</b>	460,4	455,5
<b>Sortutakoa (kg/bizt/egun)</b>	1,26	1,25
<b>Berreskuratze portzentaia</b>	20,0%	25,7%

Sasietako datuak.

## Hondakinak bereiztu

Gure eskualdean gero eta gehiago birziklatzen dugu. Gaikako bilketa aurrera eramateko ontzi desberdin ugari daukagu.


2004an, Sasietako Mankomunitatean, 117,3 kg bildu ziren gaika biztanleko. Horrek esan nahi du sortutako hiri-hondakin kopuru osotik %25,7 berreskuratzen dela, hots, aurreko urtean baino %5 gehiago.

Beste lurralde-eremuetan gertatu moduan, gaikako bilketak eta birziklapenak etxeetan hondakin ondoko frakzio hauetan du eragin handiena: papera-kartoiak (35 Kg/bizt./urte), beira (29,2 Kg/bizt./urte), eta ontzi arinak (9,8 Kg/bizt./urte).

Norberak hartu beharrek ardura da hondakinena: **murriztu, birziklatu eta berrerabili**, denok esker-tuko dugu.

## Zergatik erabili plastikozko poltsak erostetako egiteko? Eraman ezazu telazko bat

Maiatzaren 30 etik Ekainaren 5-era Goierrin ospatuko den "Aste Berdea 2005"eko ekintzen barruan poltsa berrerabilgarriak izango dira eskuragarri ostiral arratsaldean Ordizian izatzen den azokan.



## Zaborrak murrizteko aholku batzuk

- Produktu antzerakoak erosterakoan, aukera eza zu ontzi eta bilgarri gutxiengatik aukeratu. Enpakatuegiak dauden produktuak eragotzi itzazu. Kontuan har ezazu ontzi hauek ere ordezatu egiten dituzula, kasu akotan, gainera, ontzien prezioa produktuarena baino handiagoa izaten da.
- Normalean paper edo kartoi eta beirazko ontziek kalte gutxiago sortzen dituzte. Produktu desberdinen artean aukeratzeko ez ezazu haur azazu.
- Erosketak egitera zozenean eramane ezazu erostetako egiteko karroa edo poltsa. Azken aukera bezala, berrerabil ezazu eman dizuten poltsa. Behar ez duzun poltsari uko egin iezaiozu, oparitzen dizutela esaten badizute ere.
- Ahal duzun guztietan erosi itzazu inguruan ekoiztu diren produktuak. Garraioan eta bilgarrietan aurreztuko duzu.
- Ez itzazu erosi kortxozko bandeja txurietan dauden elikagaiak.
- Gure iturrietako ura kalitate onekoa da, ez ezazu, ahal bada behintzat, botilako ura erosi.
- "Brics"-ak eta plastikozko ontziak, ahal duzun neurrian, ez itzazu erabili.
- Ez itzazu aluminiozko papera eta biltzeko plastikoa buru gabe erabili. Ahal duzunean berrerabil itzazu.



**Juan Manuel Garmendia**  
Kattalin jatetxea  
Beasain

**Osagaiak  
(lagun batentzat):**

- Letxuga buru bat
- Tomatea zortzi zati eginda
- Tipula txikituta
- Azenarioa txikituta
- 12 ganba azala kenduta
- 3 txipiroi zaitututa
- 12 almeja
- Eskukada bat gula
- Oliba olioia
- Baratxuria txikituta
- Gatza
- Perrexil txikitua

Letxuga garbitu eta plateraren jarri, plateraren erdian. Tomatea garbitu eta moztu zortzi zatitan eta plateraren inguruan jarri. Horretaz gain, lehendik txikituta dauden tipula eta azenario pusketak gaintik bota.

Lan horiek egin ondoren, zartagi bat hartu eta oliba olio pixkat bota bertan. Olioia berotu ondoren, baratxuria, txipiroiak eta ganbak bertara bota.

Horiek guztiak sutan eduki ondoren, azkeneko momentuan almejek bota zartagira.

Aurretik prestatuta daukagun plateran eskukada bat gula bota.

Zartagian ditugun almejek ireki direla konturatzen garenean, bertan dauden osagai guztiak entsalada daukagun platerera bota. Orain, esan beharreko bakarra hauxe da: on egin!

## Zuhaiskak eta landare igokariak

Gustokoak izaten ditu jendeak landareak etxe barruak zein atariak apaintzeko. Landare igokariak eta zuhaiska erakoak sarritan ikusten dira balkoietan. Hori dela eta, batzuen aipamena egin nahi dut inguruan atseginak izango direlakoan.

### Lantana

Landare gogorra da Lantana eta tamaina ederra hartzen du. Izan ere, metro bat edo bi metroko altuera izatera iris daiteke. Landare honen loraldia udaberriaren amaieratik udazkenaren hasiera bitartean izaten da. Gainera, lore izugarri politak ditu landare igokari honek. Hala nola, borobil formako lore hori eta laranja ateratzen zaizkio.

**Temperatura** atsegina behar izaten du Lantana landareak denbora luzez irauteko. 15 gradutik 25 gradu bitartean mantentzen da hoberen.

**Ureztapenak** ez du lan handirik ematen. Izan ere,

hamabost egunean behin ura botatzearekin nahiko izaten du.

**Kimuak** moztu behar izaten zaizkio landareari. Urte guztian zehar bi edo hiru aldiz kimatuz gero edertasuna mantentzen lagunduko diogu.

**Lur** organikotan landatzea abertasa izaten da landare honentzat. Baina, lur xehean ere nahiko ongi mantentzen da Lantana.

**Abonua** astean behin botatzearekin aski da.

**Ontzi** handietan landatu daiteke landarea. Hala ere, lorategietan jartzea aberatsa izaten da landarearentzat eta hesi itxura emateko aukera uzten du.

### Mandrilla

Landare igokaria da honakoa eta bost metroko luzera hartzera iritsi daiteke. Uda partean ateratzen zaizkio loreak. Txuri kolorea izaten dute liliak eta usain handia botatzen dute.

**Temperatura** goxoa gustatzen zaio Mandrillari. Udan

zehar izaten diren graduetan ongi mantentzen da, baina, ez da eguzkitan eduki behar itzaletan baizik.

**Ureztapena** sarritan egin behar zaio landare igokari honi. Asteaz zehar maiz ureztatzen saiatu behar da.

**Ontzi** handietan landatzen saiatu behar da. Leku handia behar izaten du landare honek. Era berean, oso egokia da lorategietan landatzea.

**Igotzen laguntzeko** horman zerbait jartzea lagungarria izaten da.

### Leptos-permun

Landare honek ez du tamaina handirik izaten. Zuhaiska erakoa da, eta lore gutxi eta txikia izaten du. Landareak hartzen duen itxuragatik, egur asko duela ematen du eta udaberriaren landatzea komeni da.

**Temperatura** goxoa oso ongi mantentzen da landare hau. Eguzkiak asko ematen duen lekua izaten du gustoko eta babesa dagoen lekua ere eskatzen du.

## AHOLKUA



**Miren Etxezarreta**  
Muguet loradenda

**Ureztapena** sarritan egin behar zaio urtean zehar. Ahal baldin bada, ura maiz botatzea komenigarria izaten da.

**Kimaketa** egitea ez da beharrezkoa zuhaiska erako landare honetan.

**Lur** berezia behar du landare honek. Garraztasuna behar izaten du eta horregatik ez du lur karetsua nahi izaten.

**Gaixotasun** oso gutxi izaten ditu.



# “Txakur onak batez ere ehizarako zaletasuna izan behar du”

## Gipuzkoako txapeldun zarete, zein modalitatetan?

Ehiz praktikoa modalitatean. Txakurrak eperrak aurkitu behar ditu, nola aurkitzen dituen, trebakuntza eta arrazaren ezaugarriak betetzea hartzen dira kontutan.

## Zein da txapelduna, zu ala Xol?

Xol dudarik gabe. Gainera, lehiaketa honetan ez da nirekin joan, hezitzaile batekin baizik.

## Nolakoa da Xol?

Pasio handikoa da, usaimen bikaina du, bilatzaile ona da eta setter ingeles arrazaren ezaugarri onak ditu.

## Zenbat urte daramazu txakurrak hezten?

Nik txakurrak hezi baino gehiago hazi egiten ditut eta orain dela 12 bat urte hasi nintzen.

## Zenbat hezi dituzu?

Asko. Gure txakurrek hainbat dotoretasun lehiaketa irabazi ditugu. Eta adibidez, gure etxean jaiotako txakur bat Munduko nesken San Huberto modalitateko txapeldun izan zen.

## Zenbat txakur dituzu?

Normalean 6 inguru izaten ditut. Baina hori jaiotza bakoitzeko kopuruaren arabera izaten da.

## Zer da txakurra zuretzat?

Oilagorretan ibiltzen naizenez, ehizarako guztiz beharrezko laguna.

## Txakurrak txapelketetarako hezten dituzu edo benera ehizarako?

Ehizearako txakur on asko dago. Zaila txapelketetarako txakur egokiak hezte da, horiek oso gutxi izaten dira. Dena dela, nik txakurrak ehizari begira hezten ditut.

## Zer behar du txakur on batek?

Batez ere ehizarako zaletasuna. Horrez gain, hainbat ezaugarri: abiadura azkarra izatea, karakter sendoa, usaimen ona, arrazaren ezaugarriak izatea...

## Eta hezitzaile on batek?

Batez ere pazientzia handia eta ordu asko sartzea. Txakurrak errepikatzearen poderioz ikasten du. Une batean zerbait gaizki eginez gero, aurretik egindako lana pikutara joan daiteke.

## Hezitzaile ona ehiztari ona izaten al da?

Badira txakurrak hezte gustatzen ez zaien ehiztariak. Baina, normalean biak batera joan behar dira.

## Ehizean egiteko leku bat:

Hemen ehiztari gehiegi dago eta gu Huescara joaten gara.

## Ehizatzeo hegazti bat:

Oilagorra

## Jateko hegazti bat:

Agian haragia nahiago: basurdea.

## Amets bat:

Egindakoarekin gustura sentitzea.

**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

**AUSEGI**  
ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak





Goierri Lanbide Eskola  
La Granja auzoa, z/g  
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 880 062  
Faxa: 943 888 351  
www.goierrieskola.org  
bulegoa@goierrieskola.org

# Goierri Lanbide Eskola

2005-06

## Etorkizuna zuk uste baino gertuago daukazu

### LANBIDE-HEZIKETA

Goi mailako zikloak:

- Administrazioa eta Finantzak
- Eraikuntza metalikoak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industria-ekipoen mantenimendua

Erdi mailako zikloak:

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

Lanbide hastapenak:

- Autoen mekanika, Iturgintza, Txapa eta pintura, Sukaldaritza

Lan praktikak eta lan burtsa: Laneratze tasa %95



Aurre inskripzioak: Ekainaren 1etik 8ra  
Ate irekien eguna: Maiatzak 21, goizeko 9etatik 12:30era





Sergio eta Pamela,  
Gabirian bizi diren Argentinarrak:  
“Txotxongiloekin  
komunikatzea  
errazagoa egiten da”

**A**rgentinarrak dira Gabirian txotxongiloak egiten aritzen diren lagunak. Artisauak dira eta horretatik bizi dira baina luxu handirik gabe. Bi urte daramatzate Goerrin bizitzen eta oso

gustora daudela agertu dute. Era berean, artisau azokak beheraka doazela nabarmena dela azpimarratu dute eta horren aurrean zerbait egin behar dela adierazi dute Sergiok eta Pamelak.

**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako ogi naturala*  
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**

**Beasain:** Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

**HORTZ KLINIKA**



**CAMPAGNOLE Doktorea**  
Zirujau dentista

473 zki. kolegiatua

Odontologia, haur eta helduentzako ortodontzia,  
periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A

BEASAIN

☎ 943 085 229

## Nola egiten dituzue txotxongiloak?

Txotxongiloak egiteari buruz azpimarratzea gustatuko litzaidakeena guztia birziklatutako materiala erabiltzen dugula esatea da. Hau da, guk ez dugu ezer erosten. Goma-aparra kuxinetatik edota koltxoietatik ateratzen dugu. Ezagunek bota behar dituzten materialak hartzen ditugu.

Prozesua honakoa da: kuxinetako goma-aparra zaitu, moztu, garbitu eta gero lehortzen eduki behar da. Behin lehortutakoan, gurai-zeekin goma-aparrari forma ematen joaten gara egin nahi dugun irudia lortuz. Ondoren margotu egiten dugu. Arropak egiteko oihala ere jendeak emandako materialarekin egiten dugu. Oihalak saltzen dituzten dendek ere ematen dizkigute soberan dituzte zatia. Aipatu behar da goma-aparrekin egindako aurpegi horiek egiteko era ezberdinak erabili daitezkeela.

## Noiz hasi zineten txotxongiloak egiten?

Lehendik egiten genituen horrelako gauzak baina, Argentinan bigarren mailako gauza bat bezala geneukan. Gainera, Argentinan paperezko lanak egiten genituen gehienbat, izan ere, hori zen han gehien saltzen genuen produktua.

Euskal Herrira etorri ginenean ordea, asko aldatu ziren gauzak. Zarautzen egindako azokara paperezko lan asko eta txotxongilo batzuk eraman genituen. Eta erantzuna ez zen guk uste bezalakoa izan. Hemen txotxongilo guztiak saldu genituen eta paperezko lanek ez zuten arrakastarik izan. Orduan, paperezko lanak ia alde batera utzi genituen eta txotxongiloekin lanean hasi ginen. Beraz, txotxongiloak egiteko teknika Euskal Herrian bizitzen gaudela landu dugula esan daiteke.

## Artisautzaren beherakada

### Jendeak prezioari asko begiratzen dio

Nahiz eta Euskal Herrian artisauekiko jokaera oso ona dela aitortu duten Sergiok eta Pamelak, artisautza, jarduera ekonomiko bezala jaisten ari dela nabarmendu dute.

Jende askok prezioari begiratzen diola aipatzen dute eta ez artisauek egin duen lanari. Ondorioz, beste herrialde batzuetatik ekarritako produktuak erosten dituztela adierazi dute.

Bien arteko ezberdintasuna azpimarratu dute Gabirian bizi diren artisauek. "Artisauek beren eskuekin egiten dutenarekin bizi dira eta horretatik bakarrik", gogoratu dute argentinarrak. Gainera, artisauek horiek Euskal Herrian bizi direla adierazi dute: "Bertako prezio eta produktuekin bizi gara, eta ez Txinan edo beste edozein lekutan".

Produktzioa ezberdina da, ez da makinekin egiten



eta hori kontuan izateko elementu bat dela ere azpimarratu dute.

### Ekoiak txikiak

Mundu honetan ekonomiak asko markatzen duela diote Gabiriako artisauek, eta ondorioz, ekoiak txikiak ezkutuan gelditzen direla aipatu dute: "Badirudi ekoiak txikiak ez garela existitzen gizartean". Gizartean kontzientzia sozialik egongo ez balitz, ekoiak

txikiak ez liratekela egongo uste dute.

Euskal Herrian daramatzaten bi urteetan, nabarmen konturatu dira artisauek azokak jaisten ari direla eta hori azaltzeko bere lagun batzuen adibidea jarri dute: "Guk ezagutzen ditugun artisauek asko eta asko bere betiko lanaz egiteaz gain, beste alternatiba bat bilatu behar izan dute bizitzan aurrera egiten ahal izateko".

### Zer egin daiteke txotxongilo batekin? Zer erabilera eman diezaiokete pertsona batek?

Txotxongiloaren benetako jokoa txotxongiloa erabiltzen ikastea da, mugitzen jakitea. Jendeak txotxongilo bat erosten duenean, oinarriko gauzak erakusten dizkiegu eta gainerakoa berarekin ikasteko uzten diegu.

Baina jolas bat izateaz gain, beste erabilera batzuk baditu. Hala nola, komunikatzeko arazoak dituzten haurrek, txotxongilo bat hartzen dutenean aldaketa bat izaten dute. Txotxongiloaren atzean ezkututzen dira eta txotxongiloari ematen diote bere bizia. Horrela, komunikazioa lantzen du baina lotsarik pasa gabe.

Panpina bat bezalakoa da eta zu izateari uzten diozu eta zuri egitea lotsa ematen dizuten gauzak egiten dituzu. Hau guztia, helduetan baino hobeto ikusten haurretan baino helduek horretan lagundu behar diote haurrari.

### Gaur egun hori lortzea ez al da zaila?

Bai, ez da berdina guretzat txotxongilo batek zuen esanahia eta egun haur bati iruditzen zaiona. Egun, makinaren konpetentzia dago, norberaren erronka egitea asko kostatzen da.

Gaur egun jostailuak aktiboak dira eta haurrak aldiz pasiboak. Guretzako irizpide hori oinarrikoa da baina egun ez dago garai bate-

**E**gun jostailuak aktiboak dira eta haurrak aldiz pasiboak.



an zegoen pentsaera berdina.

### **Lan hauek azoketan bakarrik saltzen al dituzue?**

Bai, normalean artisau azoketan saltzen ditugu txotxongiloak. Baina, hala ere, zerbait berezia nahi izanez gero eskatzea badago. Behin baino gehiagotan egin dizkigute enkarguak eta eskaera horietatik ideia berriak ere sortu zaizkigu.

Hala ere, guretzat garrantzitsuena azokak dira. Izan ere, bertan jendearekin hartu emana izaten dugu eta jendea ezagutzen joaten gara. Gainera, azoka zalea baldin bazara behin eta berriaz elkartzen zara artisau berdinekin eta erlazio berezia sortzen da.

Horretaz gain, artisauen elkarteetan, Gabiltzan, sartuta gaude eta horrek ere artisau

ezberdinekin harremanak izaten lagundu digu eta merkatua hobeto ezagutzen ere bai.

### **Honetaz bizitzerik ba al dago?**

Biziraun daiteke. Euskal Herriko ekonomia berezia da, hau da, soldata altuak dira beste leku batzuekin alderatuta, baina bizi maila ere altuagoa da. Andaluziatik etortzen diren gure lagun artisau batzuk esaten

dute hemen ikaragarri irabazten dela. Baina noski, guk irabazten duguna bertan bizitzeko da, eta beraiek irabazten dutena Espainia hegoaldean gastatzeko da eta erdiarekin nahikoa dute. Guztiz ezberdina da.

Egia esan, gu luxurik gabe bizi gara eta horrela bizitzeko adina diru irabazten dugu. Kontuan izan behar da, adibidez, ez dugula autorik.

**B**izirauteko adina diru ateratzen dugu  
baina egia esan,  
luxurik gabe bizi gara.

### **Zer behar da artisaua izateko?**

Guk badaukagu negozioan pentsatzea eta beste zerbait egitea. Baina tematia izatearen eta usteak edukitzearen artean gaude. Euskal Herrian ere tematiak zaretela esango genuke. Izan ere, hemen baserriekin jarraitzeko eta bizi irauteko ideia ere badago. Ideia hori dela eta, hemengo parte bezala sentitzen gara eta oraindik gustorago egoten gara.

Hala ere, orain guri bizia aldatu zaigu pixka bat haurraren jaiotzarekin eta hainbat gauza aldatu behar izan ditugu. Beste lan batzu aurkitu behar izan ditugu.

### **Zuen lana nolakoa da?**

Gure lanarekin ez dakizu zer gertatuko den eta nola joango den salmenta. Azoketara joaten gara asteburuetan eta itxaroten egoten gara ea nola joaten den eguna. Oso ezberdina da artisauak bezala bizitzea edota bestelako lan batean egotea eta ziurtasuna edukitzea.

Era berean, aipatu behar da, ekoizteaz gain, beste lan batzuk baditugula. Izan ere, azokak, datak eta horrelakoak guk bilatu eta jarri behar izaten ditugu.

### **Euskal Herrian bakarrik egiten al dituzue azokak?**

Bai, ia denak. Euskal Herriko herri askotan egiten dira azokak eta hori ez da edozein lekutan gertatzen. Erki-dego batzuetan urtean hiru edo lau azoka bakarrik egiten dira eta horrekin bakarrik ezin gara aurrera atera. Hori dela eta, bertako azoketan bakarrik ibiltzeko aukera daukagu guk.

### **Azoketan arazorik izaten al da?**

Bai, gero eta gehiago etor-

# ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

tzen dira beste herrialde bateko produktuen salmenta egiten dutenak. Hau da, herrialde bateko produktuak erosi eta hemen saltzen dituztenak. Hori guretzat oso txarra da. Horiek ez dira gureak bezala eskuz egindako lanaren ondorio eta gainera merkeagoak izaten dira. Ondorioz, diruari begiratzeko jendeak beraiei erosten dizkie gauzak. Artisautza azokako berezitasuna ez baldin bada, artisauak askoz gutxiago saltzen dugu.

**Artisau azoka batean parte hartzeko zer behar da?**

Artisauen txartel bat daukagu. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak bertako artisauen zerrenda bat dauka eta horrek produktu horiek artisau batenak direneko bermea ematen du. Paper batzu eta curriculuma aurkeztu behar dira.

Hala ere, zaila da dena kontrolpean izatea eta askotan artisauak ez diren pertsonak artisau azokan parte hartzea lortzen dute.

**Foru Aldundiaren diru laguntzarik jasotzen al duzue?**

Ez. Egia esan, gure ekoizpenak ez du behar handirik. Gabiriara etorri ginenean, Goieki-ra jo genuen eta bertan zertan inbertitu genezakeen galdetzen ziguten. Orduan, josteko makina bat erosi genuen eta ordudunik ez dugu beste ezeren beharrik izan.



## Argentinarrak Gabirian

**Argentinarrak zarete. Noiz etorri zineten hona?**

Euskal Herrira duela bi urte etorri ginen, baina aurretik, urtebetez Bartzelonan egon ginen bizitzen.

**Zer dela eta etorri zineten Euskal Herrira?**

Argentinan geundela, artisautzan ibiltzen zen jendearekin hasi ginen harremanetan internet bidez. 500 email edo bidali genituen leku ezberdinetara eta erantzuna eman zigun aurreneko pertsona Euskal Herriko bat izan zen.

**Entzuna al zenuten Euskal Herriari buruzko zerbait?**

Aurretik ez geneukan ideia handirik Euskal Herria zer zen. Argentinan geundela herrialde batera gentozela uste genuen, Espainiara. Baina, hona etorri ginenean konturatu ginen guk uste genuena erabat ezberdina zela honekin, ez dauka zerikusirik. Hemen oso gustora gaude eta ez gurek ezgertatik aldatuko.

**Zergatik joan zineten Kataluniatik?**

Katalunian bizitzen geundela konturatu ginen artisau azoka gehienak iparraldean egiten zirela eta hona etortzeko asmoa geneukan. Horretaz gain, gure lehenengo artisau azoka Zarautzen ospatutakoa izan zen eta guztiz liluratuta gelditu ginen inguruarekin, paisajearekin eta baita jendearekin ere. Zarautzen egindako azoka horretan gainera anekdota bat izan genuen. Izan ere, uda horretan euri izugarri egin zuen eta gu kanpin denda batean egoten ginen. Artisau azoka horretan parte hartu genuen artisau guztiak busti-busti eginda amaitu genuen eta bertako jendea oso ondo portatu zen gurekin. Hala nola, herritar batzuk arropa lehorra ekarri ziguten eta gurekiko solidaritate handia erakutsi zuten.

**Alpe**  
SUKALDE ALTZARIAK

*sukalderik goxoenak*

Mariarats 10 Beasain  
Tfnoa 943 88 86 84

**ALDANONDO GARAJEA**  
MICHELIN zerbitzu ofiziala

- Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
- Filtroak, olioak, engrasea
- Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
- Harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

*'Oiangu publikoa eta bizirik plataformá'*

## “Proiektua gelditzea oraindik posible da”



**P**roiektua gelditzeko itzaropena daukatela adierazi dute ‘Oiangu Publikoa eta Bizirik’ plataformako kide Edurne Huesak eta Iban Alberdik. Parkea ordiziarrentzat leku garrantzitsua dela azpimarratu dute eta naturgunea babesteko eskaera

egin dute. Paisajearen balioa eta libreki aisiaz gozatzearen garrantzia gorai-patu dituzte. Bestalde, Udalean errekurso bat aurkeztu dute proiektua berriaz ere aztertzeko eskatuz. Erantzunik jaso ezean, prozedura administratiboetara jotzeko asmoa azaldu dute.

**GUKlan**  
BAINUKO OSAGAIK  
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933  
Nafarroa Etorbidea, 27  
BEASAIN

Tailerra:  
Okorro, 6  
ORDIZIA

**IÑAKI ARIN**  
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

## Plataforma bat sortu duzue. Nola hasi zen hau guztia?

Komunikabideetatik jakin genuen Ordiziako Udalak proiektua onartu zuela. Jendea elkartzen hasi ginen eta talde bat sortzea erabaki genuen eta horrela sortu genuen plataforma. Hala ere, aipatu behar da albistea komunikabideetan entzun ondoren, herriko gazte talde bat mobilizatzen hasita ze-goela jada. Gazte horiek udaletxera joan ziren eta alkatesari informazioa eskatu zioten. Datuak jaso ondoren, beren kabuz sinadurak biltzen hasi ziren. Herritarrengana hurbilduz joan ziren, eta horrela, jende gehiago animatu ginen mobilizatzeraz.

## Helburua izaera publikoa mantentzea da. Zer egingo duzue horretarako?

Informazioa zabaldu dugu, hainbat bilera egin ditugu ikastetxeekin eta Bustuntza eta Altamira auzoetako herritarrekin. Udalarekin ere hitz egin dugu eta Oianguko proiektu hau egokia dela pentsatzen jarraitzen du. Hala ere, onartu dute inpaktuko azterketaren arabera aldaketak gerta daitezkeela. Gainera, Plan Berezia eta Ingurumen Inpaktuko Azterketa onartu arte ezer berririk ezingo dutela egin onartu dute zinegotziek.

Errekurtso bat aurkeztu dugu. Erantzunik ez badugu jasotzen, prozesu administratiboari ekingo diogu administrazioarekiko auzi-epaitegiak erabakia eman dezan.

## Eta kontzesioari buruz zerbait aipatzeko?

Abokatuekin hitz egiten ari gara, izan ere, kontzesioa nola egin den ere aipatu behar da. Enpresa bati eman zaio kontzesioa, Ikenari, baina proiektua martxan jartzeko beste enpresa bat sortu behar dute, Ikengu. Kontzesio hori ez dela zuzena esan digute aboka-



*'Oiangu Publikoa eta Bizirik' plataformaren aurkezpena egin zuten Barrena Kultur Etxean hainbat herritarrek eta Udalak onartutako proiektuaren aurkako arrazoiak aldarrikatu zituzten.*

## Plataformaren manifestua

### 'Oiangu Publikoa eta Bizirik' plataformaren aldeko manifestua:

'Oiangu Publikoa eta Bizirik' plataforma hainbat ideologiatako eta arlotako pertsonak osatzen dugu (hezkuntza, kultura, kirola, ingurumena, enpresa, gazteria, osasun publikoa, etab.). Aipatu plataformako kideok idazki hau plazaratu dugu ordiziarren eta goierritarren atxikipena lortzeko, eta horrekin, Ordiziako Udalak Oiangu parke publikoa ustiatzeko onartu duen proiektuari ezetz esateko. Laburbilduta, gure iritziz proiektuaren inguruko egoerak eta helburuak zergatik diren ezegokiak, eta udalaren arduragabekeria larria nola geratzen den agerian azalduko dugu.

● Kontzesio-prozedura akatsez beterik dago: Proiektuaren garapen eta ontze-prozesua (hainbat urtetik hona landua) ezkutuan egin da. Udalak ez du halako proiektu batek beharko lukeen gardentasunik erakutsi; prebarikazioaren mugetan ibili da. Horren adirazleetako bat dugu halako proiektu batek, nahitaez, eta indarrean dagoen legediaren arabera, behar duen Plan Berezia (ingurumen eraginaren azterketa, arau subsidiarioak aldatzea, etab.) onartu gabe ere jarduerari hasiera eman nahi izatea.

● Onura publikoaren kontrakoa da: Proiektuaren helburuan ez zaio lehentasunik ematen onura publikoari. Parkearen %50 inguru pribatizatuko da, eta ezarriko diren aisi aukerez gozatu ahal izateko (igerilekua, paintball, golf) ordaindu egin beharko da. Beraz, orain arte parkeaz dohainik eta libre gozatzeko aukera izan dutenek aurrerantzean aukera hori murriztua izango dute.

● Balio negatiboak sustatzen ditu: Parkean 'paintball' izeneko jokorako eremu bat egongo da (gerraren itxura hartzen duen jokoa). Jarduera horrek bortizkeriaren kulturarekin lotutako balioak bultzatzen ditu. Errespetuan, bakean, elkartasunean... oi-narritutako kultura helarazi nahi diegu.

● Garapen jasangarriaren kontrakoa da: Ez ditu Udalak ingurumen hezkuntza eta parte hartzea (Agenda 21) bultzatzearen alde hartutako konpromisoak errespetatzen. Aitzitik, ura ondasun publiko eta urria izan arren asko erabiliko da proiektu horretan. Bestetik, zuhaitzak botako pista eta aparkaleku berriak egiteko. Kalte handia eragingo duen proiektua da.

Horregatik, idatzi honekin bat egitea eskatzen dizugu parkeak publiko eta natural izaten jarraitzea seguratzeko duen proiektu berri bat landu dezaten.



**Oianguko tabernan aurtengo udan iaz eskaini zituzten zerbitzuak ematen jarraituko dute. Hala ere, argi utzi dute oraindik parkean ezin direla ezer egiten hasi.**

tuek. Hori dela eta, errekurso bat sartu dugu Udalean berriro proiektu hori aztertzeko eskatuz.

**Sinadura bilketa bat eginen ari zarete. Zer egingo da sinadura horiekin?**

Errekurtsorekin batera aurkeztu genituen bildutako 3000 sinadurak. Martxoko plenoan Udalak onartu zuen herria aurka baldin badago proiektua gelditze-ko aukera badagoela. Baina, kontua da berarentzat herria zer den. Hala ere, uste dugu sinadura gehiago bilduta Udalak kasu gehiago egingo digula. Aipatu behar da 3000 sinadura horietatik 400 inguru ez direla ordiziarrenak baina horiek ere jasoko ditugula.

**Ordiziarrentzat leku garrantzitsua da Oiangu?**

Bai, oso garrantzitsua. Jen-

de asko joaten da Oiangua, bai familiak, bai gazteak eta baita jendea bakarrik ere. Parkean gauza asko egiten ditu jendeak: argazkiak aterra, irakurri, jolastu, merienda egin, eguzkitan egon, txoriak behatu... Gainera, ikastetxe batzuk ere etortzen dira haurrekin basoaz ikastera. Beraz, hori guztia kontuan hartzekoa da.

Oiangu babesteko eskatzen dugu. Balio natural asko dituen gunea da Oianguko parkea landareri, fauna eta paisaje aldetik. Beraz, bere garrantzia duenez babesteko eskatzen dugu. Aisi gunea mantentzea eta aterpearekin jarraitzea ere eskatzen dugu.

Hasieratik proiektu hau gelditzeko eskaria egin dugu eta parkearekin zer egin erabakitzerakoan talde des-



**Arartekoarekin bilera**

Arartekoarekin bilera bat egin zuten 'Oiangu Publikoa eta Bizirik' plataformako kideek. Iñigo Lamarcarekin bildu ziren eta atsegin handiz eta interesez hartu zituztela jakinarazi dute plataformakoek.

Udaletik jaso duten dokumentazio guztia eraman zioten Lamarcari eta sinadurak ere eraman zituztote jende asko proiektuaren aurka dagoela baieztatzeko. Arartekoa bileran bi atalekin harrituta gelditu zela jakinarazi dute plataformakoek. Alde batetik, harritu egin zen Ordiziako Udalak, Tokiko Agenda 21-en barruan egonik, nola onartu duen horrelako proiektu bat herri-tarren iritzia eskatu gabe. Bestalde, paintball-a izan zen harritu zuen beste gauza bat. Izan ere, leku publiko batean gisa horretako "indarkeriazko" jolas bat martxan jartzea arraroa iruditu zitzaion.

Orain, Arartekoak informazioa eskatuko dio Udalari eta guztia aztertuko dute. Balorazioa egin ondoren, Udalak egoki jokatu duen edo ez adieraziko dute eta Udalari gomendioak emango dizkiote plataformakoek aipatu dutenaren arabera.

berdinen iritzia eskatu behar harko litzatekeela defendatzen dugu.

**Udaletxeak proiektuaren inguruan izan duen jarretari buruz zer irudipen duzue, ezkutuan ibili direla?**

Bai, zalantzarik gabe. Albis-tea komunikabideetatik jakiteak mugitu gaitu zerbait egitera. Udalekoek betiko bidea jarraitu dutela esaten dute. Baina, gure ustez, 40 urterako proiektu batetaz

ari garenean beste bide batzuk jarraitu behar dira.

Gainera, Udala Plan Estrategiko bat egiten ari da Ordiziak hurrengo urteetan izango dituen proiektuak agertzen direna eta plan horretan ez da proiektu hau agertzen. Beraz, horrek ere haserrea eragin digu. Are gehiago, Ordiziako Udala Tokiko Agenda 21 proiektuaren barruan egonik eta partaidetza bertako ezaugarri nagusia dela jakinik.

**O**iangu babesteko eskatzen dugu daukan balio naturalagatik eta baita bertan bizi den faunagatik ere.

**Joxi**  
Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea  
Tel. - faxa:  
943 88 19 87  
676 178 488  
OLABERRIA

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

**Lirain**  
Lurrindegia eta opari gaiak



## Proiektu hau gelditzeko itxaropenik ba al daukazu?

Bai. Jende asko proiektu honen aurka dago eta gainera dagoeneko nahiko erreta daude. Udalak nola jokatu duen ez zaie gustatu.

Igeldoko Herri Kontseiluarekin harremanetan jarri garela azpimarratu behar da. Izan ere, Igeldon golf eskola bat martxan jartzeko proiektua zegoen eta Foru Aldundiak proiektua atzera bota zuen.

## Zein da proiektu honen egoera orain?

Udalak onartu du proiektua baina ez da erabateko erabakia. Orain Plan Berezi bat egin behar dute Oianguren erabilerak aldatuko direlako eta Ingurumen Inpaktuaren Azterketarekin batera Foru Aldundira bidali behar da guztia. Aldundiak aztertu ondoren, baiezkoa edo ezezkoa esango du.

Bitartean, Plan Berezia egin ondoren, guk alegazioak aurkezteko eskubidea daukagu eta gero Aldundiari ere bidali diezaizkiokegure proiektuaren aurkako arrazoiak. Igeldoko Kontseiluak Aldundiari kontrako arrazoiak aurkeztu zizkion eta Aldundiak onartu egin zituen proiektua geldituz. Aukera hori hor dago eta itxaropena badaukagu.

## Ordiziarrei eta goierritarrei zer eskatuko zenioke?

Lehendabizi eskertu behar dugu era desberdinetan jaso



**Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da eta Oianguren aldeko eguna antolatu dute plataformako kideek. Ekintza ezberdinak egin abalko dira Oiangu Parkean, ibilbide gidatuak besteak beste.**

dugun sostengu eta elkarlana, baina aurrera jarraitzeko dirua behar dugu. Izan ere, argi eduki behar da orain arte egin ditugun gauzetan diru asko gastatu dela. Hori dela eta, Kutxan kontu korronte bat ireki dugu nahi duenak borondatea sartzeko: 21010073100011594967. Sinadurak bildu diren le-

kuetan itsulapikoak jarri dira baina diru hori guztia gastatu da. Bestalde, sinadurak ere eskatzen ditugu, batez ere ordiziarrei, baina goierritarrei ere bai. Azkenik, jendearen laguntza eskatzen dugu bileretara etorriz eta proiektuaren aurkako ekintzetan lagunduz eta parte hartuz. Horretaz gain,

jendeak informazioa nahi izanez gero [oianguplataforma@yahoo.es](mailto:oianguplataforma@yahoo.es) helbide elektronikoan eskatu dezake.

## Aurrera begira zer daukazu pentsatuta?

Ekainaren 5ean Ingurumeneko Nazioarteko Eguna da eta Oianguko parkean ibilaldi gidatuak eta beste ekintza batzuk egiteko asmoa daukagu. Beraz, Oianguren aldeko eguna ospatuko dugu.

Bestalde, Goiekirekin harremanak hasteko asmoa daukagu. Izan ere, Oianguk Goierri osoari zerbitzu bat ematen diola uste dugu eta ondorioz, Goiekiri gure aldarrikapenak azaltzeko asmoa daukagu.

**J**ende asko dago proiektu honen aurka eta denon artean hau gelditzeko itxaropena daukagu.



# ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com) [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)  
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72  
201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**



## SILVIA MIRASCASAYAS

ODONTOLOGOA



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Zeraingo galtzada berreskuratzeko lanak

# Elkartrukea egin dute Zeraingo eta Dordoniako gazteek



**E**lkartrukea, harremanak eta auzolana bat egitea lortu dute Zeraingen egun hauetan. Frantziako Dordonia departamenduko gazteak Goierriko herri txiki honetara etorri dira astebete igarotzera. Bertan, lana egiteaz gain, elkar ezagutza eta aisira-

ko denbora ere izan dute. Zerain eta Legazpi garai batean lotzen zituen galtzada edo bidea berreskuratzeko lanetan aritu dira. Horretaz gain, Euskal Herriko kultura, ohiturak eta txokoak ezagutu ahal izan dituzte Champagnac de Belair-eko gaztetxoek.

 <p><b>ARANDIA</b> Garajea</p> <p>LADA Ssang Yong</p> <p>AUTOEN KONPONKETA</p>	<p>N-1, z/g Iurre Auzoa</p> <p><b>OLABERRIA</b></p> <p>☎ 943 88 09 47</p>
---	---

<p><b>PSIKOLOGI KLINIKOA</b></p> <p> <b>ARGI</b> Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkargokide zenbakia: E-2644 R.P.S.: 420/01</p> <p>AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN</p>	<p>Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak</p>
--	---

<p><b>OSTEOPATIA</b></p> <p>Jose Gisasola Dr.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL</li> <li>● ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.</li> <li>● TENDINITIS, KIROL LESIOAK.</li> </ul> <p>Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 Andra Mari, 13 behea ezk.</p> <p>R.P.S. 213/97 <b>BEASAIN</b></p>
--

<p><b>SOLOZABAL</b> AUTO-ESKOLA</p> <p>Mota guztietako gidabaimenak</p> <p>Aita Urdaneta ORDIZIA ☎ 943 88 72 76</p>
---

Duela lau urte hasi zuen Frantziako Dordoniako departamenduak elkartruke proiektua eta dagoeneko, zortzi aldiz etorri dira Frantziako gaztetxoak Zeraingo herrira. Izan ere, urtean bi aldiz bertaratzen dira 12-16 urteko gazteak Zeraingo gazte taldearekin egotera. Orain arte, dordoniarrak Goierriara etorri direnean, bidaia turistikoak egin izan dituzte Zeraingo taldearen ordezkariak, Aldabe kooperatiba elkarteko kideak, adierazi dutenaren arabera.

Dordoniako kideak aurrera eramaten ari diren proiektu horrek aurten du amaiera. Eta proiektuaren azken lana hemengo ondare historiko bat berreskuratzean finkatu dute. Hori dela eta, Zeraingo taldearen ordezkariak garai batean Zerain eta Legazpi batzen zituen galtzada garbitzea eta berreskuratzea pentsatu zuten. Horretan aritu dira halaber bost egunez Frantziako gazteak.

Galtzada berreskuratze-ko lanetarako beharrezkoak diren instrumentuak ekarri zituzten Frantziatik elkartrukeko gazteak. Palak, sardeak eta gainerako lanabesak izan dituzte lagun. Eta txukun aritu dira lanean. Orain behintzat, galtzada nolakoa zen ikusten da eta bertatik igarotzeko bidea erraztu dute. Harritzkoa da galtzada eta garai bateko espaloi antzeko bat dauka alde batean. Espaloi hori, gurdiak bidetik ez ateratzeko erabiltzen zen garai hartan. Oraindik lan guztia ez dute amaitu eta abuztuan berriro etorriko dira Zeraingo ondare historikoetako bat berreskuratzen bukatzeko.



Dordoniako gazteak elkartrukea ez dute Zeraingo taldearekin bakarrik egiten. Britainiako talde batengana ere joaten dira. Hori dela eta, proiektu horren amaiera festan, Britainiako, Dordoniako eta Zeraingo gazteak bilduko dira. Ziurrenik, Zeraingo jaietan elkartuko dira hiru taldeak eta bukatzea emango diote lau urtetako proiektuari.

### Proiektuaren sorrera

Zeraingo mehatzeak berreskuratze proiektu bat jarri zen martxan orain dela hamar urte. Baina, horretarako, diru laguntzen beharra zegoen eta Europara jo zuten laguntza bila. Bruselan egindako bilerekin esker, bazkideak lortu zituzten Zeraingo ordezkariak. Frantziako eta Greziako departamendu batean kideak lortu zituzten eta ondorioz, herrien arteko elkartruke proiektua sortu zen. Mar-

## Antzekotasunak Herri txikien arteko elkar-ulertzea

Harreman estua eta ona lortu dute Frantziako Champagnac de Belair herriko kideak eta Zeraingo gazteak, Aldabe kooperatibak jakinarazi duenez. Lotura horren arrazoia zati garrantzitsu bat herrien arteko antzekotasunekin lotu dute Aldabeko kooperatibakoek. Halaber, bi herriak txikiak baitira.

Goierriko Zerain herriak biztanle gutxi ditu eta Dordoinako herria ere txikia da, nahiz eta Zerainen baino biztanle gehiago izan. Bi herriek antzeko egoerak bizi izan dituztela aipatu zuten Aldabeko kideak. Izan ere, Zeraingo gazteak bi aldiz joan dira Dordoina aldera eta bertako herri txikiak egoera ikusi ahal izan zuten eta antzekotasunak ikusi zituzten.

Elkartrukearen ordezkariak, Frantziako herri txiki horietan bizi izan dituzten historioak ezagutu zituzten bertan egin zuten egonaldian. Eta biak herri txikiak izanik antzeko egoerak bizi izan dituztela azpimarratu zuten, hala, elkarrekin hobeto ulertzen dira.

txan dagoen proiektua bukatzen ari da baina dagoeneko aurrera begira daude Aldabeko ordezkariak. Elkartrukearekin jarraitzeko

asmoa dute eta datozen urteetako proiektua berriro ere lotzen saiatuko direla agertu du Aitziber Makatzaga Aldabeko ordezkariak.

**iñAUSTI** N-1 errepidea  
lurre auzoa  
**KARROZERIA** OLABERRIA  
☎ 943 88 43 01

**ikasteknik**  
psikopedagogia zerbitzuak  
Joan Iturralde, 5  
943 160 120  
Beasain

**Ikasketa oztupoak**  
Diagnosia eta tratamendua  
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Frantziako kideekin oso harreman ona eta estua sortu dela jakinarazi du Makatzagak. Baita, Greziako departamenduarekin hartu emana galdu zela ere. Eta neurri handi batean, Greziako taldearekin harremana galtzea diru arazoek ekarri dutela aipatu du. Izan ere, Makatzagak azpimarratu duenaren arabera, Frantziako gazteek diru laguntza "asko" jasotzen dituzte eta hemen aldiz laguntzak lortzea "oso zaila" da. Ondorioz, Zeraingo taldeak Greziara joan nahiko baluke, bidaian bakarrik, gazteen gurasoek diru kantitate "garrantzitsuak" gastatu beharko lituzketela agertu dute Aldabekoek.

Euskal Herrian dagoen antolakuntza eta Frantzian dagoena "oso ezberdinak" direla gaineratu zuen Makatzagak. Bere ustez, Frantziako erakundeek lan asko egiten dute gazteekin. Hala nola, Frantziako gazte hauek herrian etxe bat dutela argitu du eta etxe horrek futbol zelaia, bizikletak eta hiru pisuko liburutegi bat dituela berretsi du.

### Ekintza bereziak

Gazteek lana egiteaz gain, beste hainbat ekintzetan hartu dute parte. Aisialdirako denbora ugari izan dute eta Goierriko eta Euskal Herriko txoko asko ezagutzeko baliatu dute.

Ekintzetako bat Tomas Ugartemendia eskulturgilearen lana ezagutzea izan da. Frantziako gazteak harriaren eskulturak nola egiten dituen ezagutu ahal izan dute Makatzagaren arabera. Horretaz gain, aipatu behar dago Frantziako gazteek mosaikoak eta eskulturak egin dituztela elkartrukeari buruz. Eta lan horiei amaiera emateko, Ugartemendia Frantziara joango dela hila-betez euskal kultura eskultura batean errepresentatzera.



*Oihana Berasategi, Miren Makatzaga eta Aitziber Makatzaga dira Aldabe Kooperatiba Elkarteko kideak eta beraiek egiten dituzte bi herrialdeen arteko bitartekari lanak: elkartrukeak antolatu, lotu eta aurrekontuak prestatu.*

## Harremanen arduradunak

### Aldabe Kooperatiba Elkartea:

2003ko otsailaren 19an sortu zen Aldabe Kooperatiba Elkartea eta hiru dira enpresa horretako bazkide eta langileak, Oihana Berasategi, Aitziber Makatzaga eta Miren Makatzaga. Baina kooperatiba hori ez zuten ezerezetik sortu. Izan ere, lehendik bazuten lau urteetako esperientzia, baina, Aldabe Ondare Elkartean.

Hiru bazkideek turismo alorrean egiten zuten lan eta kooperatiba sortzearekin batera, beraien lan eremua zabaltzen hasi ziren. Hasiere batean, Zerain Parke Kulturala kudeatzeaz arduratzen ziren, baina kontaktuak handitzen joan ziren. Denbora igaro heinean, lan eremua zabaldu zuten eta egun askotarikoak dira Berasategik eta Makatzaga ahizpek egiten dituzten lanak.

- Zerain Parke Kulturalaren kudeaketa. Azken urteetan parkeaz arduratu dira eta egunero informazio bulegoa eta herri museoa irekita mantendu dituzte gerturatzen diren bisitariei ondarea erakusteko. Parke kulturalaren barruan Turismo bulegoaz, Zeraingo produktu turistikoiez (herri museoa, kartzela, Aizpeko meategiak...), Zerain.com web orrialdearen diseinuaz eta denda birtualaz eta aterpetxeaz arduratu dira.
- Bisita gidatuen antolaketa. Goierriko eskualdean egin daitezkeen eskaintza ezberdinak antolatzen dituzte. Goierriko museoak eta interes turistikoak duten tokiak bisitatzeko aukera ematen dute. Hala ere, eskualdetik kanpo bisitaren bat egiteko eskatuz gero ere zerbitzuak ematen dituzte.
- Elkartruke lanak. Herri ezberdinekin harremanak lortu zituzten eta Zeraingo haurrek eta beste herri batzuetakoek elkartrukea egin eta ondarea berreskuratzen eta ingurugiroa zaintzen erakusten lagundu dute.
- Bidai agentzientzat eta enpresentzat gida lanak. Egund baterako zein egund gehiagotarako gida lanak egiten dituzte bidaietan. Bestalde, enpresentzako ere lan egiten dute, lantegi barruko zein Goierriko inguruak erakutsiz.
- Ordiziako Turismo bulegoa. Ordiziako bulegoan harrera lanak egin izan dituzte.
- Stand-etako harrera. Turismo alorreko hainbat azoketan stand-etan egon dira harreman lanak egiten.
- Goierriko auto karabanarekin Euskal Herriko azoketan informazioa banatu dute.

# Aita Julian Alustiza 'Aztiri' hil da

Maiatzaren 11n hil zen Arantzazun Aita Julian Alustiza. Gabiriako Aztiria auzoko Etxetxo baserrian jaio zen 1913ko urriaren 30ean. Auzoaren izena erabili izan zuen bere idatziz gehienak sinatzeko: 'Aztiri'.

Oso gazterik joan zen Arantzazura. Espainiako Gerra zibilaren bezperan, 1936ko uztailaren 12an, apaiztu zen. Lehenengo sei urteak Valladoliden eman zituen. Ondorengoak, Erriberri, Bilbon eta Tolosan egin zituen, berriro Arantzazura itzuli arte. 1955etik hona Arantzazun egin zuen bizitza, Zarautzen eman zituen bi urteak kenduta.

## 'Arantzazuko sermoilari'

Sermoilaria eta misiolaria, ahots sakon eta lasaikoa. "Hizlari dotorea" definitu izan dute. "Hitz-jario ederreko sermoilari oparoa eta euskara aberatseko idazle dotorea". Euskaraz ez ezik gaztelaniaz ere predikari erakargarria izan zen Julian Alustiza.

Herrietako ibilaldietan gertutik ezagutu ahal izan zituen herritarren kezkak eta minak; eta horiek jaso eta erabili izan zituen sarritan bere aldizkaritako idatzietan.

Ikertzailea ere izan zen. Euskal herrietako bere apostolutza eta misio-lanetako ibilerak baliatu izan zituen herri-literaturako apurrak (bertsoak, kantak, ipuinak, herri-esaerak, zaharrak eta berriak) eta herritarren lanbideak eta ohiturak bilatzeko eta biltzeko. Ikertzailearen landaoneko horien ondorio zituen bere bi liburu etnografikoak, hizkera xamurrez idatziak eta herri literaturako aipu ugariz hornituak: 'Lihorearen penak eta

nekeak' eta 'Euskal baserriaren inguruan'. 'Garai batean...' sail honetarako gaiak lantzeko balio han-

dikoak zaizkigun liburuak hain zuzen ere.

Iaz kaleratu zuen 'Bizinahiaren arnasa', olerki,

oroitzapen eta istorioz osatutako liburua. Bertatik jasodugu ondoko koadroko kontakizuna.

## Zegamako ahunzkia

Gure arreba Mariak euskara jatorra du oso. Izan ere euskara-irakasle onak izan ditu beti. Aztirian, Etxetxo gure jaiotetxean, Joakina Alustiza, gure birramona, bere ondoran zeukan beti. Mutiloako Mendizabal-azpikoa alaba zen gure Joakina zena. Txikitant, zortzi urterekin edo, behin joan omen zen kaleko eskolara. Eta bere anaia gelditu zen bazkaria eramatekotan. Ahaztu egin zitzaion, ordea. Eta goserik eman omen zuen gaixoak egun osoa. Eta gehiago ez zuen zapaldu eskolarik. Ez zekien, bada, erdararik. Ezta tutik ere. Aparteko euskara zuen, ordea. Nik ere berarekin egin nuen solasaldi gozoz. Nekez aurki zezakeen gure Mariak 'andereño' hoberik.

Geroago Anjel Izagirrerekin ezkondu zen eta Gabiriako Igeribar errotan jarri ziren bizitzen. Eta hango aiton-amonak ere euskara aberatsa eta oparoa zuten benetan. Eta ez dago hori bezalako ikastolarik: baserriko ikastola. Auskalo noizko mendeetatik aberasten eta hornitzen datorren hizkuntza paregabea. Horregatik esan izan dut nik: horietako zahar bat hiltzen zaigunean euskal liburutegi bat daramala berekin. Eta orain da garaia zerbait bederen jasotzeko; bihar beranduegi izango da.

Gure arreba Mariari askotan entzun nion nik esamolde hau: "Egunen batean 'Zegamako ahunzkia' gozatuko zaizue zuei ere". Hiru neskato zituzten ezkontzatik, eta jateko gauza bati muzin egiten ziotenean hori zen beti bere dotrina.

Eta behin batean zera galdetu nion nik:  
– Zer da Zegamako ahunzkia delako hori?

Eta berak, bertatik:

– Zer izango da ba!

Zegamako baserri batean, dirudienez, ahunzkia omen zuten sarritan bazkaltzeko. Eta aspertuxea zegoen behintzat umeteria. Eta neskatorik zaharrenak esan ere egiten omen zion bere amari:

– Gaur ere ahunzkie bazkaltzeko. Beti ahunzkie!

Neska hori, 16 urte bete zituenean, orduko baserriko ohiturari jarraituz, Tolosa aldera eramane zuten neskame bezala. Ez zuen soldata handirik jasoko, baina zerbait gehiago ikasiko zuen beti... Eta gainera or-



**"Zabar bat hiltzen zaigunean euskal liburutegi bat darama berekin. Eta orain da garaia zerbait bederen jasotzeko; bihar beranduegi izango da".**

duko baserrietako familia luze haietan aho bat gutxiago izango zen jateko ere.

Dena den, sei-bat hilabete edo neska-metzan igaro ondoren, bueltatxo bat egin zuen Zegamako bere baserrira, gurasoak eta senideak agurtu eta ikusteko asmotan. Eta bere amak sukaldean ikusi zuenean, besarkada bero eta luze bat eman ondoren, zera esan zion bertatik:

– Ume –garai hartan hogeitertetik beharoko alabei 'ume' esaten zitzaieen–, ondo suerte txarra daukazu ba...

– Zer gertatzen da ba?

– Gaur ere ahunzkia daukagula eguerdian bazkaltzeko –amaren erantzuna.

Eta alabak bertatik:

– Ahunzkia egunero jango nukena jarrita nago ni ere... –etxeokandre xurra zuen nonbait!

Eta hortik dator gero euskal esamolde jator hori. Umeek jaki bati muzin egiten bazioten, laster gogoratuko zien gure arreba Mariak: "Egunen batean Zegamako ahunzkie goxatuko zaizue zuei ere!".



Ezkió

## Igartubeiti museoa

### Museoen Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 21ean ospatuko dute Ezkioko Igartubeiti Baserri Museoan Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, museoaren atea irekiko dituzte eta nahi duenak baserria bisitatzeko aukera izango du doan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Igartubeiti Baserri Museoa XVI. eta XVII. mendeetako zurezko arkitektura tradizionalaren adibiderik onenetarikoak da. Beraz, eraikin horren xarmaz gozatu nahi duen orok bertaratzeko aukera izango du. Goizean eta arratsaldean izango da bisitak egiteko aukera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Baina bisitaldi gidatuak ere egingo dira eta horiek 11:00etan, 12:30ean eta 17:30ean izango dira.

*Idiazabal*

## Egitarau zabala

### Maiatzak 21, larunbata:

**19:30ean:** San Adriango Pilota Txapelketarako finalak jokatuko dira Igarondo pilotalekuan.

**20:30ean:** Jubilatuen Elkarteko urteko batzarra ospatuko da jubilatuen elkartearen.

**22:30ean:** Macrea Clarcken "Bakearen eta umorearen autobusa" ikuskizuna izango da Kultur Etxean. Macreak, Urretxun bizi den irlandarrak, Euskal Herriaz duen ikuspegi umoretsua bildu du ikuskizun honetan. Euskal Herriko 40 herritan egingo du emankizuna. Azkena Ipar Irlandan egingo du, Derry hirian.

### Maiatzak 22, igandea:

**07:00etan:** Otzaurterako autobusa abiatuko da. Bertan joan nahi dutenak maiatzaren 20an, ostiralean, 13:00ak baino lehen eman beharko du izena udaletxean.

**12:00etan:** San Adriandik bueltan datozen herritarrei harrera egingo die txistulariek herri sarreran. Parrokiara arteko ibilbidea egingo dute.

**18:00etan:** Euskal jaia ospatuko da herriko plazan. Herri kirolak, dantzariak eta bertsolariak egongo dira. Nahikari Gabilondo, Iker Zubeldia eta Iñigo Izagirrek kantatuko dituzte bertsoak. Horren guztiaren ondoren, ardoa eta txistorra banatuko dira plazako arkupean.

### Maiatzak 27, ostirala:

**20:00etan:** Kantu emanaldia ospatuko da herriko parrokiaren. Musikagile klasikoek lanak entzuteko aukera izango da.

**BIDAIAK**  
OVER Taldea

Zure bidai agentzia

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel./Faxa: 943 80 40 15 [urraki@over.es](mailto:urraki@over.es) [www.over.es](http://www.over.es)

**ANZIZAR, S. A.**

**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
[www.anzizar.com](http://www.anzizar.com) ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

**kutxa**  
gizarte ekintza

Ordizia

## Henna tatuajeen ikastaroa

Ekainaren 6an, hennazko tatuajeak egiteko ikastaroa egingo da Ordizian. Hitzaro euskara elkarteak eta Udal Aholku Batzordeak antolatu dute eta hamasei urtetik gorakoei zuzendua dago.

Ikastaroan gehienez 15 pertsona onartuko dira eta maiatzaren 27ra bitartean dago irekita izena emateko epea, Hitzaro elkartearen edota Mujika liburudendan. Ikastaroa hiru orduko saio bakarra izango da eta 17:00etatik 20:00etara egingo da.

Irati Ibañez eibartarra izango da ikastaroko irakaslea. Ibañezek henna nola egiten den irakatsiko die bertaraten diren herritarrei. Izan ere, bere ustetan, nahiz eta henna salgai egon, "ez da guztiz naturala".

Lazkao

## Oskorriren emanaldia

Maiatzaren 24an Euskal Herrian oso ezaguna den Oskorriren emanaldia izango da ikusgai Lazkaon. Oskorriren *The pub ibiltaria* ikusi ahalko da Maizpide Euskaltegiko zinema aretoan, 21:00etan.

Legorreta

## XXVII. Herri krosa

Maiatzaren 28an XXVII. aldiz ospatuko da Legorretan herri krosa. Goizeko 11:30ean hasiko da lasterketa baina ordubete lehenago, parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du udaletxean.

Ibilbide luzea da, 7,5 kilometrotakoa zehazki. Lasterketan, lehenengo hiru gizon-emakumeei garaipen ikurrak emango zaizkie. Lasterketa amaitzerakoan aldiz, sariak oparituko dira lasterketan parte hartu duten guztien artean. Korrikalari guztiei hamaiketako eskainiko zaie eta dutxa zerbizua ere izango da.



Zegama

## IV. Zegama-Aizkorri mendi maratoia

Maiatzaren 29an ospatuko da Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Aurtengoarekin laugarren urtea da maratoia egingo dena eta oraingoan ere, iaz bezala, munduko koparako baliagarria izango da.

Denbora gutxi da mendi maratoni hau egiten hasi zirela, baina, lorpen handiak egin dituzte epe motzean. Urtetik urtera gero eta ezagunagoa da Zegamako maratoia eta munduko leku ezberdinetako jende ugari bertaraten da parte hartzera. Goierriko, Euskal Herriko eta beste herrialde batzuetako pertsona asko dira proba honetarako prestatzen aritzen direnak. Urte guztian zehar entrenamendu ariketak egiten dituzte. Izan ere, mendi maratoni hau ez da edonolako proba.

Era berean, daukan zailtasuna kontuan izanik, asko dira proba hau antolatzen aritzen diren lagunak eta guztia behar bezala izaten dute prestatuta. Hala ere, horrekin ez da nahikoa izaten. Izan ere, proba ezaguna denez, asko dira maratoia ikustera joaten diren herritarrek eta horiek ere kontrolatu behar izaten dira. Ondorioz, antolatzaileen esanei kasu egiteko gomendioa ematen zaie bertaraten diren ikusle guztiei.


# berriz

AMAYA ARZUAGA FRENCH CONNECTION  
MIRIAN OCARIZ DIESEL  
ISABEL MARANT FOR ALL MANKIND  
PAUL & JOE ANTIK BATIK  
HOSS EARL JEANS  
MISS SIXTY SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



# GOKINDEGIA GARIONA

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

## ETXEBIZITZAK

### salgai

**Atikoa** salgai Beasaingo erdigunean. Guztiz berritua dago. 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, sukalde amerikar muebleztatua, bainugela eta trastelekua. 144.242,90 euro. 660836723.

**Legorretan**, etxebizitza berritua salgai, trastalekuarekin eta garajearekin. 660095263.

### errentan eman

**Donostian** (Antiguon) etxebizitza bat alokatzen da uztailean, abuztuan eta irailean. 2 logela, dena konpondua. Ondarretatik 10 minutura, 943377292 (gauetz deitu, 21:30etatik 22:30etara).

**Ordizian** etxebizitza bat alokatzen da. 665736062.

**Zarautzen**, etxebizitza bat alokatzen da, udarako, astebukaerako, zubietako... Hondartzatik gertu dago. 685718454.

**Ezkarain**, etxebizitza alokatzen da, udan. 678344604.

## elkarbanatzeko

**Pisukide** bat behar da, Tolosan, alokatutako pisua osatzeko. 659766795.

## BESTELAKOAK

### salgai

**Peliser** errepideko bizikleta salgai, berdea. Shimano RX100 kanbioak, 24 abiadura. 150 euro. 943722898. Aritz.

**BMWren aluminiozko llantak** salgai, kubiarta eta guzti. 205/60/RIS. Egoera oso onean. 510 euro. 667711074.

**Gurdi denda** bat salgai dago oso egoera onean. Comanche markakoa da. Interesatuak deitu 669644727 telefono zenbakira.

## ANIMALIAK

### salgai

**Aharia** salgai dago, gaztea eta ona. 943885102.

## GALDUTAKO OBJEKTUAK

**Telefono mugikorra** galdu dut Lizarrusti eta Kaxeta bitartean. 943886610.

## Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**

barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN



Tel.:  
943 887 048

Faxa:  
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

**OSINALDE  
KARROZERIA**

ainara etxeberrria

**HANKARA**

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

**ZUZENKI**  
A H O L K U L A R I T Z A



Abokatuak

Enpresen asesoria  
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet .net

Hirigoien,7 LAZKAO



www.txekin.net



## IBILGAILUAK

### salgai

**Ssang Yong Musso 4x4** salgai. 1998. urtekoa. Oso egoera onean. 943187706 (gauean deitu).

**Aprilia SR 50** salgai. dago eta egoera oso onean dago. Interesa dutenek 646535174 telefono zenbakira deitu dezakete.

**Honda CBR 600** salgai. 2000. urtekoa. Egoera onean. Paperak mugatuak. Latigiloak, karbonozko ihes-tutua, estriboak, kutxarentzat euskarria. 6.000 euro. 659694233.

**Suzuki GSX 1100 F** motorra salgai. Maletarekin. SS-AG. 50.000 km. Beltza. Zaindua. 2.000 euro. 670324885. Mikel.

**Ford Mondeo 1.8** salgai. 16 balbula, CLX, 115 zaldi. 81.000 km. Oso egoera onean. 685762213.

**Suzuki DR, 350**, enduro motorra salgai. 4 aldi, egoera onean. 2.100 euro. Onena, ikustea. 649911320.

## LANA

### eskaerak

**Zerbitzariak, sukaldariak, garbiketarako jendea, sokorristak eta administrari laguntzaileak** behar dira uda partean lan egiteko Goierriko zonaldean. 635752398.

**Neska gazte** bat behar da kotxeak garbitzen diren Beasaingo leku batean lan egiteko. Interesatuak 943161847ra deitu.

**Ileapaindegirako laguntzaileak** behar da Beasainen, asteburuetarako. 943881442.

**Asteburuetarako** neska behar da tabernan lan egiteko. Esperientziaduna. 605772623.

## eskaintzak

**Gauetz lan egiteko** eskaintzen da pertsona helduekin lan egiteko. 616889923.

**Emakume** bat banaketan edota neska batek laguntzaile bezala egin dezakeen edozein lan egiteko prest dago. 678781985.

**Neska bat** gauetz lan egiteko eskaintzen da, zerbitzari bezala edota pertsona helduekin egiteko.

**Neska euskalduna**, administraria, goizez lan egiteko eskaintzen da. 652737157.

**20 urteko** mutil bat peoi bezala lan egiteko eskaintzen da. Esperientzia dauka eraikuntzan. 678781985.

**Emakume bat** pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Autoa daukat mugitzeko. 678781985.

**23 urteko neska** euskalduna prest dago dendari bezala lan egiteko. 649928356.

**Neska** eskaintzen da orduka lan egiteko, etxeetan edo ostalaritzan. Esperientziaduna. 617792722.

**Edozein lan** egiteko prest dago neska bat. Batez ere goizez. 650389586.

**Kontabilitatea**, fakturak, nominak, zergak edo bankuko tramiteak egiten dizkiet autonomo eta enpresa txikiei. 685720279.



**mazda**

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma  
BEASAIN

**Bikar, S. A.**



Tel. eta Faxa: 943 886 558  
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
LAZKAO

toldosagustin.com

auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

**GERTU** abokatuak



**AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

Kale Nagusia, 2  
BEASAIN

**ENPRESA ZERBITZUAK**

Tel.: 943 16 21 92

Faxa. 943 88 36 33

gertu.asesoria@terra.es

www.gertuasesores.com

**ASEGURUAK**

**AMEBI**



**Sagardotegia**

**Erretegi bezala  
zabalik**

\* Eguneroko menuak

\* Karta zerbitzua

\* Ospakizunak

\* Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

**ikaskide**  
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5  
solairuartea  
943 160 120  
Beasain

ikaskide@ikaskide.net  
www.ikaskide.net

**INFORMATIKA-GELA**

✓ Ikastaro berriak:

- Mekanografia
- Word , acces , excel...
- Internet
- Ingelera

**UDA IKASTAROAK**

Uztaila eta abuztua

- ✓ Errekuperazioak
- ✓ Udako lanak
- ✓ Datorren ikasturterako prestaketa
- ✓ Ingelera
- ✓ Tailerrak: ikasketa teknikak, irakurmena/idazmena, matematika/kalkulua

**ESKOLA LAGUNTZA**


- ✓ Azken azterketak
- ✓ Maila guztiak: LH, DBH, batxilergoa ,unibertsitate-maila, moduloak...
- ✓ Talde txikiak eta arreta pertsonalizatua

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku



**Pazko bigarrena Astigarretan**

Garai batean Pazko egunean jai handia ospatzen zen Beasaingo Astigarreta auzoan. Pazko bigarrean ere jai egi-ten zuten San Gregorioko ermitan. Aloña Oruezabalek utzitako argazki hauetan, 1953 eta 1966 urteen arteko pazko bigarreneko jaiak ikus daitezke. Jai hau denborarekin galdu egin zen eta pazko egunekoa berreskuratu badute ere, pazko bigarrenekoa balduta dago.



**OTEÑE  
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabe

Larraitz bidea **GAINTZA**  
☎ 943 88 98 48

**Iñausti**  
Hertz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zoki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28

**Zunzunegi**  
*Oinetakoak*

Hirigoien, 8A LAZKAO  
943 087 913

Arriak parrilan

☎ 943 65 21 76

**ZALBIDE**  
TOLARE  
SAGARDOEGIA

**Herri Irratia**  
RADIO POPULAR

**Goierri**  
105.2 fm

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

## Erizain laguntzailea

Osasun familia.

A-D erduetan



**Izen ematea:**  
ekainaren 1etik 8ra arte



### TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

### IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),  
lantegietan egiten den prestakuntza  
barne (400 ordu).

### LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatueta.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.

J.M. Iparragirre B.H.I.  
Santa Barbara Bidea z/g.  
Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403  
E-posta: [jmiparragirre@edunet.es](mailto:jmiparragirre@edunet.es)  
[www.ibdinternet.com/iparragirre](http://www.ibdinternet.com/iparragirre)



## OIANGUREN BHI

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

Altamira Auzoa z/g **ORDIZIA**  
Tfnoa.: 9438 880 862 Faxa: 943 164 121  
[012282aa@hezkuntza.net](mailto:012282aa@hezkuntza.net)

### HAUR HEZKUNTZA

(GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA)

Iraupena 2000 ordu (2 ikasturte)

- Haurren mundura gerturatzeko.
- Jolasen bidez ikasten.
- Etorkizunerako prestakuntza ezin hobea jasotzen:
  - > Lan mundua: Irakaskuntza, Haurtzaindegiak, Ludotekak...
  - > Unibertsitatea: Hainbat lizentziatura eta diplomaturako sarbide zuzena.

**AURREMATRIKULA EPEA:** Ekainaren 1etik 8ra





# Goi Mailako Tolosaldea L.H. Institutua



## ESKAINTZA AKADEMIKOA

### ARAUTUA

Ate irekien  
eguna  
maiatzak 18

### Goi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazio bidezko produkzioa.
- Eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea.
- Metal-eraikuntza.
- Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak.
- Administrazio eta finantzak.
- Informatika-sistemen administrazioa.

### Erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazioa.
- Soldadura eta galdaragintza.
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.

### EZ ARAUTUA

- Langileen etengabeko formakuntza. Kualifikazio profesional sistemako ikastaroak. Doan. Mekanika, soldadura, elektrizitatea, informatika, administrazioa.
- Langabetuen formakuntza.

Telefonoak: 943 651 147 (Josune)  
943 650 664

E-mail: [idadzaritza@tolosaldea.com](mailto:idadzaritza@tolosaldea.com)  
Webgunea: [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

### AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 8ra

### MATRIKULA EPEA

Ekainaren 30etik  
uztailaren 6ra

## INSTITUTU HONEN BIDEZ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE

- Iaz Ikasketa Teknikoak amaitu zituzten ikasleetatik %100 jadanik lanean ari dira.
- Lankidetzeta hitzarmenak 150 enpresekin.
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromezu hartzen dugu.

**Ikastetxe honetan kalitatea ez da moda bat,  
gauzak hobeki egiteko era baizik**

9 urte ISO 9002 eta 4 urte zilarrezko Qarekin irakaskuntza hobetzen.  
Lehenengoak IIP ziurtagiriarekin lankideen kudeaketa egokia bermatzen.